



## Mario Conde gaur irtengo da espetxetik

Espetxe Zaintzako fiskalak ez du errekurritu bankari ohiaren hirugarren gradua → 15

## Kolonbia

# Gerrillek gogor eraso arren bakea lortzeko saioek jarraitu egin behar dutela dio Pastranak

Azken astean FARCEk eta ELNk eginiko erasoetan 150 bat hildako izan dira, eta hirurogeitaka soldadu eta polizia bahituta dituzte gerrillariak

→ 16

## politika

■ ABC egunkariaren aurka salaketa jarriko du Hitz egin plataformak → 6

■ Carmelo Barrio: «PPko Gobernuak salatzeko ETaren estrategia berbera darabil EAJK» → 7

## gizartea

■ hiesa  
Sebastianen gutuna kritikatu dute COFES zentroek, Gobernuak eta Hiesaren Aurkako Hiritar Batzordeak → 8

## ekonomia

■ Hauteskundeek zerga erreformari ez diotela eragingo diote EAEko ogasunek → 12

■ Auto salmentak %15 egin du gora → 13

## estatuak

■ Espainiako Barne Ministerioak ukatu egin du etorkinen heriotza ezkutatu egin zuela → 14

## nazioartea

■ Kabilaren aurka altxatutako tutsiek Kongo ekialdea kontrolpean dute → 17

## kirola

■ Groningen-Reala, 2-2 eta gustora → 18

# Maiztegi ez kanporatzea erabaki du Belgikako Estatu Kontseiluak

Euskal errefuxiatuaren egoeraz erabaki beharko du orain Barne Aferen Departamentuak

■ BELGIKAKO Barne ministroak Juan Cruz Maiztegi euskal errefuxiatua kanporatu egingo zutela iragarri zuen arren, Estatu Kontseiluak baztertu egin du kanporatzea. Horrenbestez, Barne mi-

nistroak ezingo du asmoa bete. Orain, Belgikako Barne Aferen Departamentuak Maiztegiren egoerari buruzko erabakia hartu beharko du. Izan ere, Bruselako aireportuan agiri faltsuekin

harrapatu zutenetik atxilotuta dago euskal errefuxiatua. Maiztegi kanporatzeko aukerarik ez dagoenez, normalena litzateke aske utzi eta Belgikan sartzen uztea. → 5

ROBERTO BOREA / AP



# Monica Lewinskyk «egia osoa» esan du

Baliteke Etxe Zuriko bekadunaren aferak Bill Clinton presidentearen etorkizuna baldintzatzea

■ Monica Lewinskyren eguna izan zen atzo EEBBetan. Etxe Zuriko bekadun ohiak Epaimahai Nagusiaren aurrean deklaratu zuen, Bill Clinton presidentearekin izan bide zuen harreman sexualari buruz «egia osoa» esateko. Harremanak izan zituztela onartu zuen Lewinskyk, lehen horrela izan zela ukatu zuen arren. Clinton ere, zinpean, ustezko harreman horiek ukatua da. Zina hautsi zuela argi geratuz gero, litekeena da Bill Clinton presidentea kargutik kentzeko prozesua hastea.

→ 17

9808

narrazioak

Gaur

Iñaki Petxarroman

'Periferiako istorioak'